

Iratxo irakurtzailea

Urtearen hasierarekin batera, liburutegian agertu zen iratxo bihurri eta sudurzaleak, Kaxkabilo izenekoak, oso gustoko du irakurtzea, eta harrez geroztik, handik eta hemendik dabil, ikasleengan irakurketa bultzatzea eta zabaltzea helburu duela.

Izkutuan, inork ez zuen jakin zein zirrukitutan, haurren aurrean azaldu baino lehen, gau eta egun egon zen bere burua apaintzen. Bitartean eskutitzak idatzi zizkien ikasleei, berarentzat izen ponpoxo eta dotore bat denen artean aukeratzeko eskatuz. Hala, ikasleak proposatutako izen guztien artean iratxoaren gustokoena Kaxkabilo izan zen.

Noizbait agertu zen berriz ere iratxoa, eta geroztik hortxe dabil ikastolatik barna, bere rastak astinduz, bere eskutik Ikastolako haurrei ekintza ugari eskainiz.

Ipuin kontalari agertu zen lehenengoz kamishibaia eskutartean zuelarik, ikastolako haur guztiak liburutegitik pasa ziren bera ezagutzera eta bide batez ipuin dibertigarri bat entzuteko aukera izan zuten. Bata bestearen atzetik, ezbeharrez beteriko kontaktak, ikasleen algara ederrak entzuteko aukera eman zuen.

Irakurketa txokoa, liburu ederrez beteta, antolatu zuen beheko pasabidean, edonork bertan momentu goxoak pasa ditzan. Txokoak, informazio gunea ere badu, adinari lotuta dauden liburu zerrendak ikusteko, geletara kanpotik datozen ipuin kontalarien berri emateko, gurasoei aholkuak zabaltzeko eta liburutegian sartu diren zenbait liburu berri ikus daitezke ere.

Kaxkabilo kanpoko liburutegietan, auzokoetan, antolatzen diren ekintzei buruzko informazioa zabaltzeaz arduratzen da ere. Zein egunetan, non eta zer dagoen ikasle eta gurasoie azaltzen die. Azkenik, liburu azoka antolatu du haur eta helduei liburuak elkar-trukatzeke aukera emanez.

Ikasleak hortxe daude urduri eta irrikitan hurrengoetan Kaxkabilok zer egingo edo eskainiko zain.